

GURE BERTSOLARIAK

Euskaldunon artean beti izan dira euren barruko kezka, biotz-ikarak eta urduritasunak neutitzez agertzen zaleak: Bertsolariak.

Leenago, bertsolariak, sagardauaz edo naparraz txerbeldu zeitezanean, taberna zirkilluetan alkarrerri bertsoak botatzen azazkatzen eben euren barruko bultzaden etorria: Batzuetan euren gogoen neke ta samintasunak abesten ebezan, beste batzuetan poz, alaitasun eta, arrokeritxuak bere bai; baiña, geienetan, alkar zirikatuz, batak bestearen alderdi egokiezak eta baita, alderdi onak eta ez ain onak bere agertu erioezan. Eta pozarren eukiten ebezan, entzuten inguruan egozanak.

Areik, gure sagardautegi eta ardandegietako bertsolari zintzoak, errikoi-errikoiak genduzan eta maite eta gogoko ebezan erri leunak eta begiramen eta gogokotasun aundia eutsen.

Erri-erria baiño jakintuntxoagotzat euren buruak eukezanak, ostera, moskortizat ezpazan bere, arda-zaletzat eta ganorabakotzat eta, baita, alpertzat be, etsiten ebezan gizon zintzo areik. Beti izan dira, ba, eta baita izango ere, erri-gizonakandik urrun-samar bizi direan jauntxu ta aundi-ustekoak bere. Olan-goak, euren buruak besteenak baiño obatzat daukezanak, ez dabe gura izaten ar-emonik, eurak esango leukienez, erri abarraz; baiña jakin behar leukie eurek etxakin eta ganorabakotzat daukiezan erritarrak direala gure oitura ta ekandu onak aurrera eroan dabezanak. Areik, besteak, erbestekeri ta oitura arrotzak

ontzat artu ta indarra emon baiño ez dabe egin izan, ba, euzkotasuna, euskeltasuna ta erriaren zaletasun jator eta garbiak arbuñatuz.

Oraïn elizetan bere, Meza-bitartean, abesten dauskuez bertsoak: Ondo egiña da-la? Txarto egiña da-la? Ez dot uste eliztarrak txartzat artzen dabezanik. Abadeak curak bere ba-dira, batean-beste, altaratik eliztarrak bertsoak abesten dautsezanak. Gogoz entzuten dautsez, eliztarrak. Nik neuk egoki deritxat, ba, erriak beti maite izan dauan eran: bertsoz, jainkoari otoitz egin eta eskerrak emotea.

Baldras-antzeko baserritarrak izanarren, jainkozale ta biotz-andi andiko gizonak zirean gure bertsolari zaarrak, naiz-ta, noizik-bein, eurak konturatu baiño leen, goizaldean eldu, pitxar-artean, bertso eta ipoin, taberna-zirkilluan. Baiña ez eben buruko-miñik etxera eroaten.

Olangoxe gizonai esker eldu izan yakuz, ba, agoz-ago, zenbatgura bertso zaar jakingarri, esakera dotore ta itz eder asko geure berbetearen zuzpergarri.

Areixek, *baldras*, *taberna-zale*, ta *ezikasi* areixek izan yakuz, ba, gure izkuntzea, elederrerako, geien indartu ta apaindu izan dauzkuenak.

Autuan dabidazan bertsolariak etziran oraingoak lez landuak baiña berezko sen eta biotz-ondoaren jabe zirean eta oraingo landu askok baiño neurtitz eta aapaldi sakonagoak eta gogokoiagoak botaten ekien, bai itzez eta olermenez bere. Oraingo bertsolariak ikas-ikasiak dira baiña, areik, berezkotasun eben eta arexek, berezkotasun arrigarriak, emoten eutsen etorria gogoan eta biotzean ebezan taupadak azaltzeko.

Oraingo bertsolariak ikasiak baiño gogokoago ekidazan, niri neuri, beintzat, eta beste askori bere baietz uste dot, areik, askorentzat etxakin, ardau-zale ta ganorabakoak zireanak. Benenetakoko bertsolariak genduzan izan bere, gero, areik: atzerrikeriz ez izketa lorrinez ez besteren *jakituriz* lorrindu ez kutsutu bagakoak.

Bertsolariak gora jazo eta izkuntza ta doñuz be barriztau-

kereaz zuntzitu edo, erdi zuntzitu, beintzat, egin dauz benetako erri-bertsolariak eta orain ez dogu izaten aukerarik alangoeri, berezko etorria daben bertsolarieri entzuteko. Egiazko bertsolariak plazetan eta txapelketetan diarduenak bakarrik izan daitezkeza uste-edo dabe, askok, baiña ba-dira or dabizan batzuri ezer zor ez dauksenak, iñok aittetu bagarik bizi direanak be gure artean..

Beste onen beste jazo yaku gure dantzakaz bere: Zigurtasun guztia eratuta agertzen dauzkuez plazetara, ikasi-ikasi egin-dako dantzariak eta galdu egin yakuz, lotsatuta-edo, erri-dantzari jatorrak. Orain, ez dogu erriko aurrezkularirik bere ikusten Meza-osteko jaietan: Ezpatadantzarien batzuk eta kittu. Egitekoak ondo egin bearrean ondo egin bearraz, erriari aztu-eragin dauztaguz, lotsa-nastez, geure oiturak. Benetan arbuia garria!

Ikasi-ikasiak bakarrik geure jaietan agertzeak galdu-eragin dauz, ba, gure benetako erri-bertsolariak, erri aurrezkulariak eta abar.

Erria beti da erri; eta aututako banaka bat bakarrik euren eginkizunak zirkin eta urratz guztiakaz, ikasi-ikasi eginda, agertuezkero guztien aserrean, besteen, erritarren, bazterkarri doguz, Aberriaren eta gure oituren kaltez.

Areik, leenagoko bertsolari zintzoaik zillegizti edo moralaren aurkako bertsorik abesteko oitura zikiñik ez eben. Orain, oster, lotsabakokeriak bere entzuten dira bertsolari ikasien ekitaldietan. Eta onen errua gai-jartzailleak dabe, geienetan. bertsolaririk geienak, beintzat, berbeta oneko gizonak izan oi dira baiña debeku bako jartzailleen gaiak bide okerreratzen ditu, sarritan.

Bein, gure erriko jaietan, bertsolarieri entzuten nengoan eta gai-jartzaille egoanak izentatu eutsen gai-zikiña entzun izan nebanean, lotsatuta, amurruz, alde egin neban, zelaitik: Eneban asko bear izan, ba, ari, gai-jartzaille ari, erriaren aurrean oles egiteko.

Aurre-Apr aiz'ek